## NARRATIBA

# Gasolindegian erretzen

**GASOLINDEGIAN**
Yurre Ugarte
Alberdania, 2002
96 orrialde. 14,50 euro

Leire ZUBELDIA




Liburuaren azala da pospoloa: gasolina hornigailu bat, barruan harrapatuta dagoen emakume bat, giza garuna agertzen den posterra eta txorimalo bat paisaia laranja gorriztatu batean. Denbora eman dut elementu horiei begira, denak istorio batean nola elkartu daitezkeen pentsatzen. Liburua irekitzean aurkitu dut lehenengo pista: lehenengo manifestu surrealistaren aipua. Pospoloaren gar txikiak atzamarrak erretzen ditu jada. «Notrèdam-eko konkorduna autobusean doa», hasi da lehenengo ipuina. «Konkorreko zamak bultzatuta gauza harrigarriak egiten omen dituzte konkordunek», irakurri dut ipuinaren hondarrean. Eta bai; gasolindegiko konkordunak gauza harrigarria egin du. Pospoloaren garttoa sutzar bilakatu da, norbaitek gasolina bota izan balio bezala. Eta suak indartsu iraun du, ipuinez ipuin, liburua amaitu arte.

Autobuseko konkorduna da sua pizten duena, baina ipuinez osatutako nobela honetan Rakel eta Claudiu pertsonaiak jartzen ditu irakiten Yurre Ugartek. Irunen bizi den idazle tolosarrak ez dagokion lekuan dagoen pertsonaiaren istorioa kontatu nahi izan du. Rakel Arte Ederretan lizentziaduna da, eta bizitzak (edo gizarteak) gasolindegi batean lan egitera eraman du, sortzaile izateko prestatu den pertsona lan mekaniko batean jarriz. Claudiu, berriz, etorkina da, errumaniarra. Honen egoera ere ez da batere desiratua, Rakelena bezala. Baina biek bizi duten errealitate makurrak INEMeko bulegora joanarazten ditu, eta han egiten dute topo. Sua, maitasuna sortzen da bien artean. Egoera makur batek egoera hobe batera eraman zaitzakeela iradoki nahi izan du egileak. Amaiera esperpentikoa du, baina ez tristea. Baikortasunerako deia irudi dezake.

Idazleak berak esana da errealitatea dela bere literaturaren abiapuntua. Zinez erreala da ez dagokion tokian dagoen pertsonaren irudia. Baina errealitate arrunt horretatik harago, muturreko egoeretara eramaten ditu bere pertsonaiak. Egoera horiek urrun daude ohiko errealitatetik, baina arraroak iruditu arren, errealitate izan daitezke. Hala izan ezean, istorioa ez litzateke sinesgarria izango, eta niri behintzat sinesgarria egin zait. Zentzu horretan, lagungarria gertatu zaio idazleari konkordunaren figura: ohiko errealitatearen eta fantasiaren arteko zubi modura erabili du, egoki, eraginkor.

Zazpi ipuinez osatuta dago "Gasolindegian" eleberria. Era independentean irakur daitezke, ipuin bakoitzak bere istorioa kontatzen baitu; baina multzoan irakurrita, istorio bat osatzen dela konturatuko da irakurlea. Ipuin guztiak kronologikoki harilkatuta daude, pertsonaiak batean eta bestean agertzen dira, eta narratzailearen ahotsa errepikatzen da. Oso da nabarmena istorioen arteko harreman hori; horrenbestez, ia ezinbestean nobela baten gisan irakurriko du irakurleak.

Gauza harrigarriak gertatzen dira gasolindegian. Hain harrigarriak, non batzuetan bigarren irakurraldia beharrezkoa den gertatutakoa irensteko. Ipuinetan ez dago ezer soberan, ez dago alferrikako hitzik, dena hartu behar da kontuan. Alde horretatik, ahalegin bat eskatzen dio irakurleari. Adi irakurriz gero, erre egingo zara. Oharkabean egindako irakurketak aldiz, ez hotz eta ez bero utz zaitzake. Zuk aukeratu.

## KALERATU BERRIAK




### LA HISTORIA QUE HUBIERA PODIDO SER

**CÓMO NO QUERERTE, ALBA**
Iñaki Gonzalo, "Kitxu"
Txalaparta, 2010
200 páginas. 17 euros

La brigadista garestarra Begoña García, *Alba*, fue ejecutada extrajudicialmente en El Salvador en 1990. Tenía 24 años. Médico de profesión, lo había dejado todo para colaborar, primero, en Nicaragua y después, en uno de los frentes del FMLN. Desde la cárcel de Dueñas, Iñaki Gonzalo ha rescatado su historia.




### RETRATO DE LA REALIDAD BALCÁNICA

**UN PUENTE SOBRE ELDRINA**
Ivo Andric
RBA, 2010
445 páginas. 27 euros

Ivo Andric (1892-1975) es uno de los autores más destacados de la literatura serbobosnia. "Un puente sobre el Drina", su obra maestra, es una novela que recorre cinco siglos para retratar la trágica historia de los Balcanes. Una crónica de los avatares históricos de un espacio geográfico sometido a una permanente tensión.




### FÁBULA SOBRE LA FEMINEIDAD

**LA IMPERFECCIÓN DEL AMOR**
Milena Agus
Alfaguara, 2010
136 páginas. 16 euros

La nueva novela de la autora de "Mal de piedras" cuenta la historia de tres hermanas que ocupan tres apartamentos de un aristocrático palacio en Cerdeña. La mayor sueña con un esplendor perdido, mientras la segunda desea tener un hijo y la tercera busca el amor. Agus nos transporta a su peculiar mundo.




### UN VIAJE INICIÁTICO

**PHILIP Y LOS OTROS**
Cees Nooteboom
Siruela, 2010
152 páginas. 16 euros

Cees Nooteboom, uno de los más originales escritores holandeses, debutó con esta novela, publicada originalmente en 1988. Este breve relato nos cuenta las vivencias de Philip, un adolescente que viaja en autostop por Europa, donde conocerá a todo tipo de personajes y descubrirá mundos atractivos.



**Víctor MORENO**

## Guelbenzu

Sorprende la cantidad de escritores que teorizan sobre novela como si fuesen sus más cualificados sabios y, luego, cuando las escriben son peores que Pérez Reverte y que Marías juntos.

En cambio, conozco escritores que no son capaces de articular una frase acerca de cómo se consigue el punto de vista y la verosimilitud literaria, y las escriben que da gusto leerlas. Lo pertinente sería que, ahora, soltase yo varios nombres de estos últimos novelistas, pero no lo haré, porque son más de diez, aunque entre ellos, lo siento por él, no figure Kirmen Uribe.

¿Por qué esta distancia entre los conocimientos y la propia praxis? Tiene que ser muy doloroso para un escritor, caso, por ejemplo, de José María Guelbenzu, que, conociendo todo lo que hay que saber sobre novela, mucho más que lo que chamulla el académico Francisco Rico y el mismísimo Muñoz Molina, no sea capaz de escribir una novela legible, digna de pasar a la historia de la literatura por méritos derivados del sintagma, y no por la tabarra mediática impartida, con premeditada y alevosa intención, desde Alfaguara, o, lo que es lo mismo, desde Prisa.

Guelbenzu ha teorizado como pocos sobre la verosimilitud literaria. Y, sin embargo, desde su primera novela, "El mercurio" (1968), ha sido incapaz de mostrar pragmáticamente que sepa lo que es dicho concepto. Tanto que resulta del todo inverosímil que, a estas bajuras de la vida, Guelbenzu escriba una novela creíble. Su última entrega, desde luego, no lo es.

Vistas así las cosas, no extrañará que afirme que «el mercado se inunda en ocasiones de productos comerciales sin valor literario» (13.07.2010).

Entendido. Tiene que ser muy doloroso estar en posesión de lo que sea la esencia literaria de una novela y ver que sean los demás, y no uno, quien las escriba.